

Beñat Muguruza Aseginolaza (UPV/EHU)

Irantzu Epelde Zendoia (CNRS-IKER)

**Gazte
eleaniztunak**

**Mintzalari
eta
mintzagai**



emon ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gazte eleaniztunak

Mintzalari eta mintzagai

B. Muguruza Aseginolaza, I. Epelde Zendoia
(arg.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea</i>	
Beñat Muguruza, Irantzu Epelde	9
<i>Characteristics of cross-linguistic influence in the writings of young multilinguals</i>	
Elizabet Arocena Egaña	15
<i>Hizkuntza praktikatetik harago. Bertso-eskola euskarazko gazte identitateak eraikitzeko gune</i>	
Miren Artetxe Sarasola	37
<i>Gazteak Azpeitian, zuka ala hika? Praktika horiekin lotura daukaten aldagaien azterketa</i>	
Beñat Muguruza, Garbiñe Bereziartua	57
<i>Euskal gazteen identitate digitalak: benetakotasunaren eraikuntza sare sozialetan</i>	
Agurtzane Elordui, Jokin Aiestaran, Libe Mimenza	77
<i>Hizkuntza Tutoretza HUUHEZIn: Hezkuntza graduetako ikasle eta tutoreen ebaluazioa</i>	
Letizia Garcia Fernandez, Nekane Arratibel Insausti, Agurtzane Azpeitia Eizagirre	107
<i>Muda linguistikorako ahalak eta ezinak Bilboko gazte euskaldunen ahotsen</i>	
Jone Goirigolzarri Garaizar, Ane Ortega Etcheverry	127
<i>Basque language immersion training: Basque-Spanish code-switching (CS) in the oral production in children</i>	
Orreaga Ibarra Murillo.	149
<i>Face-to-face and online multilingual prospective teachers: A descriptive analysis on attitudes towards Basque, Spanish, English and multilingualism</i>	
Ainara Imaz Aguirre, Nagore Ipiña Larrañaga, Miren Agurtzane Bikuña Munduate, Eunatze Arebietorre Landeta.	171

<i>Translanguaging praktikekiko jarrerak eskal gazteen artean</i> Oihana Leonet, María Orcasitas-Vicandi	189
<i>Hizkuntzak irakasteko estrategiak testuinguru eleaniztunetan: unibertsitate ikasleen iritzien analisi tematikoa</i> María Orcasitas-Vicandi, Oihana Leonet	209
<i>Unibertsitateko gazteen praktika birtualak, heteroglosiaren gertaleku</i> Elixabete Perez Gaztelu	225
<i>University students' reflections towards multilingualism</i> Alaitz Santos	245
<i>Hizkuntzak, identitatea eta gazteak. Zurruntasunetik malgutasunerantz</i> Eider Saragueta	265
<i>The Level of Multilingualism of Business Students in the Basque Autonomous Community and their Perceptions of Languages</i> Karin van der Worp	285

Gazteak Azpeitian, zuka ala hika? Praktika horiekin lotura daukaten aldagaien azterketa

Form of address choice among teenagers from Azpeitia:
Research on related factors

Beñat Muguruza, Garbiñe Bereziartua

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena

Gaztaroa identitatea eraikitzeko aroa da eta, horretarako, baliabide garrantzitsuak da hizkuntza. Hitanoa esparru informalerako apropostzat jotzen den baliabidea izaki, bere ekarpena egin lezake gazteen hizkuntza-errepertorioan. Azterlan honen helburuak bi dira: batetik, Azpeitiko gazteek lagunekin hika zenbateraino egiten duten jakitea; eta, bestetik, gazte horiek hika egitearekin lotura eduki dezaketen aldagaiak ezagutzea. Datuak galde-sorta bidez bildu ditugu, Azpeitian ikasten duten 12-18 urte arteko 470 gazteko erandako erantzunak aztertuta. Hitanoaren erabilerari dagokionez, emaitzek erakutsi dute alde handia dagoela genero batetik bestera: mutilek erruz erabiltzen dute eta neskek oso gutxi. Horrekin zerikusia daukaten aldagaiak aztertuta, ikusi dugu euskara parte-hartzaileen hizkuntza nagusia izateak eta beren gertuko harreman-saretik hika jasotzeak lotura daukatela parte-hartzaileek lagunekin hika egiteko daukaten joerarekin, baina lotura horren sendotasuna aldatu egiten da aldagai batzuetatik besteetara. Hitanoa gazteentzako baliabide aproposa izan daitekeela dioten ahotsei erantzunez, kasu honetan balibide hori bere egin duten gazteak mutilak bakarrik direla dirudi. Eta gazte-hizkeraren baitako elementu bat beharrean, identitatearen eraikuntzan heldutasunera hurbiltzeko erreminta izan liteke. Horrez gain, goitik beherako transmisioaren eredu ere auzitan jarri nahi dugu, hizkuntza-sozializazioaren eredu hobeto egokitzeko baita ikusitako errealitatera.

Gako-hitzak: gazteak, hitanoa, aldagaiak, generoa, transmisioa.

Abstract

Youth is an age to build identity, and language is an important asset in that construction. The informal form of address *hika* is considered appropriate in casual settings, and it can make a contribution in young people's language repertoire. This research has two goals: first, it seeks to know how much *hika* young Azpeitians use; second, it explores the factors that may be related to that use. We collected data through a questionnaire delivered to 470 teenagers (age=12-18) studying in Azpeitia. Regarding *hika* use, our results show that there is a large gender gap: boys use *hika* very often, whereas girls seldom use it. Looking at factors that might be related to the use of *hika*, it seems that having Basque as the strongest language and being addressed in *hika* by their close social network is associated to using *hika* more often with their friends, but the strength of this association varies depending on the factor. Considering the idea that *hika* can be a valuable tool for young people, it looks that only boys integrate that feature as part of their identity. In any case, rather than a characteristic of youth language, *hika* may serve as an element to get to adulthood in the construction of identity. We also concluded that the model of top-down transmission can be questionable in certain settings, as language socialisation would explain our results more reasonably.

Keywords: young people, hika, factors, gender, transmission.

Sarrera

Identitatearen eraikuntza ezin daiteke mugatu adin-tarte batera, baina prozesu hori indartsuen azaleratzen den garaia gaztaroa da. Identitatea eraikitzeko prozesu horretan baliatzen ditugun elementuak asko dira, baina garrantzitsuenen artean dago hizkuntza. Kasu honetan, hizkuntza baino euskararen baitako aldaera edo tratamendu bat aztertuko dugu: hitanoa. Hitanoa esparru informalean erabiltzeko tratamendua da. Horren harira, gazteen errepertorioa janzteko erreminta aproposa izan daiteke. Baina zenbateraino baliatzen dute gazteek baliabide hori?

Horren berri jakiteko, Azpeitiko herrian jarri dugu fokua, non hitanoa egunerokotasunean erabiltzen den. Batetik, bertako gazteen hizkuntza-praktiketan hitanoak zer toki daukan ikusi nahi dugu. Baina, jakina denez, hizkuntza-praktika horiengan eragina eduki dezaketen aldagaiak egon ohi dira. Beraz, bestetik, gazte horien hitano-erabilerarekin lotura izan dezaketen aldagaiak zein diren ezagutzeko ahalegina egingo dugu.

1. Atal teorikoa

Atal honi hasiera emateko, ikusiko dugu identitatearen eraikuntzan hizkuntzak paper garrantzitsua jokatzen duela eta gazteek beren identitatea

erakitzeke baliabide hori erabiltzen dutela. Horren harira *gazte-hizkera* deitzen moldearen bueltan arituko gara eta horretan hitanoak bete lezakeen funtzioaz jardungo dugu. Jarraian, gazteek hizkuntzen artean aukeraketa egiteko garaian zer faktorek eragiten duten ikusiko dugu. Eta, amaitzeko, ikerketa honen testuingurura hurbilpen bat eginez, Azpeitian hitanoa erabiltzeari buruzko datu orokor batzuk eta gazteen artean hika hitz egitea sustatzeko abian den egitasmoa ezagutuko ditugu.

1.1. *Identitatea, hizkuntza eta gazteak*

Historian zehar identitatearen kontzeptua aldatuz joan da jendartearen egiturak aldatuz joan diren heinean. Jørgensen-ek (2010) identitatearen kontzeptuak historian zehar izan duen garapena aztertu zuen eta XXI. mendean hasieran identitatea pertsona baten esentzia izatetik zerbait malgua eta negoziagarria izatera pasa dela ikusi zuen. Ikuspuntu horretatik, pertsona batek ez du berez identitate zehatzik; pertsona bakoitzak hainbat baliabide dauzka azkenean identitatea osatzen duten ezaugarriak garatzeko.

Baliabide horien artean hizkuntza dago eta asko dira hori adierazi duten ikerketaileak. Li Wei-k (2008) esaten duenez, soziolinguistentzat hizkuntza erabat lotuta dago identitatearekin eta identifikazio-prozesuekin. Pavlenko-k eta Blackledge-ek (2004) argudiatzen dute hizkuntzak eta identitateak elkar erakitzen dutela eta identitateak askotarikoak, dinamikoak eta aldakorrek direla. Blommaert-ek (2005) ere esaten du hizkuntza-erabiltzaileek hainbat hizkuntza-baliabide erabiltzen dituztela identitatea eratzeko, eta, beraz, hizkuntzak zerikusit handia daukela identitatearen erakuntzarekin. Haren arabera, hiztun eleaniztunarentzat hizkuntza bat ez da komunikatzeko bide bat bakarrik; hizkuntza bat edo bestea aukeratzea identitate-ekintza bat da. Meinhof-ek eta Galasinski-k (2005) ere esaten dute eguneroko bizitzan erabiltzen dugun hizkuntzak bere parte daukela gure askotariko identitateak eraiki eta sendotzean. Eta eranstean gure egunerokotasunean erabiltzen dugun hizkuntzak zehazten duela nor garen eta zein taldetakoak garen edo zein taldetakoak izan nahi dugun.

Hiztunak esperimentuak egiten ditu identitatea erakitzekeko prozesuan, eta hori bereziki gazteen artean gertatzen da (Jørgensen 2010). Esate baterako, Moshman-ek (1999) esaten du nerabezaroan sartu ahala, identitatea norberak sor lezakeen eta sortu behar duen zerbait dela ikusten joaten direla gehienak. Eta nerabeentzat identitateak bi gauzari erantzuten diela: norbera nor den eta norberak nor izan nahi duen.

Horrekin lotuta dagoen beste kontzeptu bat taldeko kideza-sentimendua da. Kideen arteko interakzioak berebiziko garrantzia dauka nerabeentzat

(Stenström, Andersen & Hasund 2002), eta kideen taldean integratzea lehen-tasunezko bilakatzen da gazte horientzat (Ceginskas 2010). Tabouret-Keller-ek dioenez (1996), beste zenbait baliabideren artean, hizkuntza erabiltzen da talde jakin bateko kidetza nabarmentzeko, onartuta edo debekatuta dauden mugak erakusteko edota norbait barnean hartu nahiz kanpo uzteko.

1.2. *Gazte-hizkera eta hitanoa*

Esan bezala, gazteek beren identitate propioa eraiki nahi dute, gainontzeko adin-taldeetatik bereizteko, eta horretarako erabiltzen duten baliabideetako bat hizkuntza da. Bereizketa-nahi hori adierazteko «dibergentzia» hitza erabiltzen du Esnaolak (1998), «inklusioa eta eskusioa» Le Page eta Tabouret-Keller-ek (1985), edota «social marker» Vermeij-ek (2004).

Hørup-en eta Møller-en (2010) arabera, hizkuntza baten erabiltzailea, bere eguneroko bizitzan hainbat hizkuntza-aukera txertatzen dituenen, nolabaiteko identitatea eratzen ari da. Etengabe estilo batetik bestera eta erregistro batetik bestera aldatzen ibiltzen den hizkuntza-erabiltzaileak erakusten du hizkuntza-baliabideen errepertorio zabala daukala, eta horri esker identitate erakargarri bat eratzen du. Androutsopoulos-ek eta Georgakopoulou-k (2003) esaten dute gazteen kulturen erosotasun kulturen globalizazioa eta horrek dakarren homogeneizatzeko joerak egon badauden arren, gazteek badaukatela interesa eskura dauzkaten baliabideak modu aktibo eta sortzailean erabiltzeko.

Gazte-hizkera izendatu ohi dena izango litzateke horren fruitu. Stenström-ek eta bere kideek (2002) argi adierazten dituzte gazteek hizkuntza-aldaera propio bat erabiltzeko dauzkaten arrazoiak:

Why use slang then? Considering that teenagers are in fact expected to violate social taboos, there is of course all the more reason for them to use «their own language» as a means of provocation and as a means of keeping the older generation outside, while at the same time strengthening the bonds within their own peer group (Stenström, Andersen & Hasund 2002: 67-68).

Androutsopoulos-ek (2005), gazte-hizkeraren inguruan egindako ikerketen errepasoan eginez idatzitako artikuluan esaten zuen XX. mendera arte gazte-hizkeraren ikerketarik ez zela egin, baina 1980ko hamarralditik aurrera geroz eta ikerketa gehiago egin izan direla.

Gazte-hizkera horrek zein ezaugarri dauzkan aztertzeko ikerketa asko egin izan dira (Androutsopoulos & Georgakopoulou 2008, Esnaola

1998, Jørgensen 2010, Martínez 2009). Baina, kasu honetan, aldaera horren ezaugarriei begiratu ordez euskararen baitan gazteentzat apropostzat jotzen den tratamenduan jarriko dugu fokua: hitanoan, hain zuzen ere.

Azken urteetan hitanoa gaitzat hartuta egin diren zenbait ikerketak azpimarratu dute hitanoa eremu informalerako eta gazteen artean erabiltzeko baliabide aproposa izan daitekeela. Ozaitak (2014: 101) zera dio: «Tolosaldean euskararen kale erabilera bultzatzeko oso egokia da hitanoa eta gaur egun gaztelerak betetzen dituen zenbait espazio irabazteko egokia izan daiteke hitanoaren bultzada». Beitiak (2017) gazteen artean hitanoaren erabilera bultzatzeko beharra ikusten du. Eta Alberdi Zumetaren (2019: 77) iritziz «euskarak lagunarteko hizkera informalerako duen baliabide paregabea da hitanoa». Berariaz gai hau ikertu ez duen arren, Altunak (2018: 190) *Hitanoa eta Generoa: aberrastasuna ala sexismoa?* ikastaroaren harira idatzitako artikuluan honakoa adierazten du: «Euskararen biziberritze prozesuan, hitanoaren sustapena oso interesgarria izan daiteke adiskidetasun adierazpen horrek lagunarteko hizkera edo ahozko hizkuntza ez-formala zabaltzeko bidea eman dezakeelako».

Eremu akademikotik kanpo ere gai hau mintzagai izan da euskal soziolinguistika-komunitatean. Esate baterako Rodriguezek (2015) adierazten du hitanoak balio lezakeela zenbait kasutan gazteek hizkuntzaren birtartez lortu nahi duten informaltasun, txispa, gatz, indar edo hurbiltasun hori lortzeko. Garziak (2016) esaten duenez gaur egun euskarak erregistro informal-ludikoetan dauka gabeziarik larriena eta beste elkarrizketa batean adierazi zuenez (Artola 2018) gazte-hizkeran freskotasuna lortzeko erdaretara jotzeko dagoen joera orokortua da eta euskara informala sendotzeko baliabide egokien artean sartzen ditu, besteak beste, hitanoaren erabilera edota tradizioan arakatzea. Amonarriek ere (2019: 318) bat egiten du ideia horrekin: «[Ahozkotasunaren] lanketa honetan, hizkera informala jorratu behar da eta euskalkiak eta hitanoa indargune eta lagungarri gisa hartu, errealitate soziolinguistiko bakoitzera eta gaur egungo arau soziale-tara egokituz».

1.3. *Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak*


Hizkuntzen erabileran eragiten duten faktoreak zein diren ikusteko Euskal Herrian egin diren bi ikerketa ekarriko ditugu hona. Batetik, Inkesta Soziolinguistikotik ateratako datuekin korrelazioen analisiak egin dituzte hiru erabilera-eremuren arabera (Aizpurua 2018): etxeko erabilera, lagunartekoa eta lankideen artekoa. Erabilera horietako bakoitzarekin In-

kesta Soziolinguistikoa jasotzen dituen 28 aldagai¹ gurutzatu zituzten eta euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla ikusi zuten: harreman-sarea (pertsone bakoitzaren erabilera-eremuan euskaraz zenbait dakiten eta zein gune soziolinguistikotan bizi diren) eta euskaraz ari zeko erraztasuna.

Bestetik, Euskal Herriko Soziolinguistika Klusterrak *Gazteen erabilera. Perspektiba eta prospektiba* proiektuaren baitan gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa egin zuen Topagunea (Euskara Elkarteen Federazioa) eta Gipuzkoako Urtxintxa eskolarekin. 12 eta 30 urte bitarteko gazteek eremu ez-formaletan duten hizkuntza erabilera aztertu zuten. Erabileran eragiten duten faktoreak Martinez de Lunak (2001) proposatutako markoaren barruan antolatu zituzten, alegia, maila indibiduala, mikrosoziala eta makrosoziala.

Emaitzen txostenean (Soziolinguistika Klusterra, Topagunea & Urtxintxa eskola 2009) ikus daitezke faktore horien antolaketa eta definizioak. Maila makrosozialesan eragiten duten faktoretzat hartzen dituzte hiztunaren testuinguru politikoa, jasotzen dituen input mediatikoak eta jasotzen duen kontsumo-erabilera. Hiztunarentzat erreferente diren pertsona eta taldeak maila makro nahiz mikrosozialesan koka litezke. Maila mikrosozialesan eragiten duten faktoreen artean honakoak zehazten dituzte: hiztunaren harreman-sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak, gizarteak nola hautematen duen hizkuntza eta gizarteak nola hautematen duen egoera soziolinguistikoa. Hiztunaren hizkuntza-gaitasuna maila mikrosozial nahiz indibidualean koka liteke. Eta maila indibidualean eragiten duten faktore gisa aipatzen dituzte hiztunaren identitate kolektiboa, hiztunak hizkuntzarekiko dauzkan jarrerak eta portaerak eta hiztunaren haurtzaroko hizkuntza-ingurunea. 1. irudian modu argiagoan ikus dezakegu faktore horien antolaketa:

¹ Aldagaiak hauek izan dira: gune soziolinguistikoa, udalerriaren elebidunen %, zein hizkuntzatan hitz egiten duen errazago, lehen hizkuntza, zein hizkuntzatan egin dituen oinarriko ikasketak, zein hizkuntzatan egin dituen bigarren mailako ikasketak, eskolaz kanpo euskaraz ikasi edo hobetu duen, adina, bukatutako ikasketak, jatorria, euskalduntzat daukan bere burua, euskarari buruzko interesa, zein hizkuntzatan nahi lukeen ikas dezaten seme-alabek, G20 tipologia, guztiz bertakoa izateko euskaraz jakin behar den, hobe den jendeak ingelesez ikastea euskaraz ikastea baino, Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea beharrezkoa litzatekeen, ezinbestekoa den haur guztiek euskaraz ikastea, irrati/telebistek programa gehiago behar luketen euskaraz, euskaraz galtzeko arriskuan dagoen, G21 tipologia, euskaraz beharrezkoa den jendearekin komunikatzeko, euskaraz ez duen sekula izango gaztelaniak duen garrantzia, nahiago duen euskaraz egiten duten dendetara joatea, oro har hurbilagokoak sentitzen ditudan euskaldunak, euskaldunek ezezagunei lehen hitza euskaraz, euskaldunok beti euskaraz nahiz eta guztiek ez jakin.



Inurria: Soziolinguistika Klusterra, Topagunea & Urtxintxa eskola 2009.

1. IRUDIA

Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa-eredua

1.4. *Hitanoa, gazteak eta Azpeitia*

Hitanoaren gainean egin diren ikerketek erakutsi dutenaren berri izateko, ezinbestekoa da Alberdi Larizgoitiaren (1993, 1994) lana hona ekaritzea. Bere ikerketa 90eko hamarraldian gauzatu zuen eta hika egiteko joerak eta irizpideak aztertu zituen. Hitanoa erabiltzeko garaian pertsonarteko bi harreman mota bereizi zituen: goitik beherakoa eta berdinen artekoa. Goitik beherako harremanetan ohikoa izan da tratamenduen erabilera asimetrikoa, gurasoek seme-alabei edo nagusiak langileari hika egitea, eta seme-alabek gurasoei edo langileak nagusiari, aldiz, zuka. Kasu horietan autoritate-harremanak edo botere-desoreka adierazteko baliatu izan da hitanoa. Hala ere, hika egiteko testuingururik ohikoenak anai-arreben edo lagunaren artekoak begitartzen zaizkio. Baina harreman mota horietan ere hainbat irizpideren arabera da hitanoaren erabilera. Irizpide horien artean aipatzen ditu, esaterako, hizketarako gaia eta testuingurua, adina, ahaidetasun maila edota hiztunen arteko kidesan maila. Eta esku-artean daukagun ikerketari begira, bada Alberdi Larizgoitiak irizpideen artean ez ezik hitanoaren erabilerari dagokionez ere maiz aipatzen duen aldagai bat: generoa.

Erreferentziazko beste lan bat Azkuerena (2000) da. Zumaian burutu zuen bere ikerketa eta hiru herritar-profilengandik jaso zituen da-

tuak: baserritarrek, 18-30 urte bitarteko gazte-kuadrillak eta nerabeak. Emaitzen artean nabarmendutako datuetako bat transmisioak izandako beherakada izan zen; eta beste bat generoen arteko aldea: gizonezkoen artean gehiago erabiltzen dute hika eta gizonezkoei egiteko gehiago erabiltzen da hika.

Euskal Herri osoari begira jarrita hitanoaren osasuna gorabeheratsua den arren, egunerokotasunean normaltasunez erabiltzen den herrietako bat Azpeitia da (Alberdi Larizgoitia 1996, Soziolinguistika Klusterra 2016). Eta Azpeitian hitanoa erabiltzearen gainean egindako ikerketek norantza bereko emaitzak erakutsi dituzte: gizonezkoek hika gehiago egiten dute (Aranguren 2012, Azpeitiko Euskara Patronatua 2012, Soziolinguistika Klusterra 2016, Alberdi Zumeta 2019), gizonezkoei gehiago egiten zaie hika (Aranguren 2012, Azpeitiko Euskara Patronatua 2012, Alberdi Zumeta 2019) eta helduek eta gazteek gehiago egiten dute hika umek baino (Aranguren 2012, Soziolinguistika Klusterra 2016).

Hitanoa Azpeitian bizirik egon arren ahultzen ari zela ikusita hitanoa landu eta sustatzeko egitasmo bat jarri zen martxan (Azpeitiko Udala 2015): AzpeitHika. 2011z geroztik herriko ikastetxe guztietan Soziolinguistika Klusterrak sortutako material didaktikoak praktikara eramaten ari dira, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Egitasmoaren helburuen artean dago gazteen artean hitanoa sustatzea.

2. Metodologia

2.1. *Helburua eta ikerketa-galderak*

Hizkuntza-ohiturak finkatzeko adin berezia da nerabearoa, eta fase horretan dauden hiztunei begira jarri gara ikerketa honetan. 12-18 urteko gazteek hitanoarekin duten harremana izango dugu hizpide, eta bi alderdiri begiratu nahi diegu: batetik, gazte horien hizkuntza-ohiturei erreparatu nahi diegu hitanoari dagokionez; bestetik, jakin badakigu modu batera ala bestera hitz egiteko hautuaren atzean faktore andana dagoela, eta arakatu nahi dugu nerabe azpeitiarren tratamendu-erabilera horiek zerk bultzatzen dituen. Horiek horrela, honako bi ikerketa-galdera hauei erantzuten ahaleginduko gara:

1. Azpeitiko 12-18 urte arteko gazteek zein neurritan egiten dute hika?
2. Zein aldagaik dute lotura 12-18 urteko gazteek lagunekin hika egitearekin?

2.2. Parte-hartzaileak

12-18 urte bitarteko 470 gaztek hartu dute parte ikerketa honetan: % 52,6 emakumezkoak, % 46,6 gizonezkoak, eta aukera ez-bitarra markatu zuten % 0,9k. Bigarren hezkuntza Azpeitian ikasten ari diren ikasleak dira denak: % 41,4 DBH 2koak, % 37 DBH 4koak, eta % 21,7 batxilergokoak, bai lehenengo bai bigarren mailakoak. Azpeitian ikasten duten DBH 2ko eta 4ko ikasle guzti-guztiak sartzen dira laginean; izan ere, Azpeitiko bigarren hezkuntzako hiru eskolak hartu genituen kontuan: Urola Ikastola BHI eskola publikoan jaso genuen datuen erdia pasatxo, Kristau Eskolako Iraurgi Ikastetxean ia herena, eta Ikastolen Elkarteko Ikasberri Ikastolan gainerako guztiak. Azpeitian jaio ziren parte-hartzaileen % 68, eskualdeko beste herri batzuetan % 18,5, Euskal Herriko beste herriren batean % 5,7, eta Euskal Herriatik kanpo jaio ziren parte-hartzaileen % 9,4. Bizilekuari dagokionez, berriz, Azpeitian bizi dira hamar parte-hartzailetik zortzi, eta gainerakoak inguruko herrietan (Zestoa, Errezil, Beizama, Zumaia...). % 87,7k dio euskaraz sentitzen dela erosoan.

2.3. Ikerketa-tresnak eta datu-azterketa

Adin horretako gazteentzat berariaz ondutako galde-sorta bidez jaso ditugu ikerketa honetako datuak. Galdera ugari biltzen ditu: datu pertsonalak, hizkuntza-ohiturak, eta horren barruan batez ere hitanoari buruzko galderak. Galde-sorten erantzunak biltzeko ikastetxetara jo genuen. Ikasleek eskolako ordenagailuetan bete zuten galde-sorta, eskola-orduetan. Ikertzaileak presente egon ziren talde bakoitzarekin, egin beharrekoak azaltzeko eta edozein zalantza argitzeko. Ikasleei 30 minutu eman zitzaizkien galde-sortari erantzuteko.

Bildutako datu guztien artetik batzuk erabili ditugu hemen pausatutako ikerketa-galderei erantzuteko. Hauek dira, zehazki, lan hau gauzatzeko baliatu ditugun itemak:

- Lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko galdetu diegu lagunekin normalean hika ala zuka egiten duten, neskekin zein mutilekin. Alberdi Larizgoitiak (1993, 1994) esan bezala, senideak eta lagunartea dira hitanoaren esparru naturala. Horiek eta beste hainbat datu ere eskura izan arren, lagunekin dituzten hizkuntza-ohiturak baino ez ditugu jasoko hemen. Kontuan hartu behar da galde-sortan lau aukera eman genizkiela parte-hartzaileei («beti hika», «hika gehiago», «zuka gehiago» eta «beti zuka»), baina analisiak egin eta datuak aurkezteko garaian bi aukeratarra murriztu ditugu: «hika» eta «zuka».

— Lagunekin hika egiteko garaian zein aldagaik eragiten duen ikusi nahi izan dugu bigarren ikerketa-galderaren bitartez. Horretarako, lehenengo ikerketa-galderako datuak galde-sortan erantzundako beste hamazortzi itemekin gurutzatu ditugu: generoa; maila; zein hizkuntzatan sentitzen diren erosoen; beren gertuko harreman-sareko pertsonen hika, zuka ala beste hizkuntza batean egiten duten edo dieten (etxean: etxeokoe subjektuei, gurasoek lagunekin eta gurasoek elkarri; ikastetxeko testuinguruan: ikaskideek, irakasleek eta ikastetxeko beste langileek subjektuei); eta, azkenik, hika gehiago egitea gustatuko al litzaiekeen².

Lehenengo ikerketa-galderari erantzuteko, maiztasunak eta ehunekoak atera ditugu. Bigarrenean, aldiz, taula gurutzatuak egin ditugu balizko eragile guztiekin, batetik (aldagai independenteak), eta lagunekin hika egiteko duten ohiturarekin, bestetik (aldagai dependentea), emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita. Pearson-en chi karratuaren bidez (χ^2) ikusi dugu asoziaziorik ba ote dagoen, eta asoziazio horren sendotasuna ezagutu dugu Phi balioari (ϕ) esker (0-0,2: harreman oso baxua; 0,2-0,4: baxua; 0,4-0,6: ertaina; 0,6-0,8: sendoa eta 0,8-1: harreman oso sendoa). SPSS 24 programaren bidez aztertu ditugu datuok.


3. Emaitzak

3.1. *Azpeitiko 12-18 urte arteko gazteek hika egiten al dute?*

Azpeitiko nerabeek hika egiteko daukaten ohiturari buruz ikusi ditugunak aurkeztuko ditugu ondorengo lerroetan. Ikusi dugu generoa datekeela aldagaririk erabakigarrietako bat hika egiteko ohituren atzean (Alberdi Larizgoitia 1993, 1994; Azkue 2000); hori dela eta, lehen analisi honetarako generoa bereiztea komeni zela uste izan dugu. Analisi hauetarako, eta hauetarako bakarrik, haien burua generoaren banaketa binarioarekin identifikatzen ez duten horiek ez ditugu aintzat hartu.

² Hona hemen aldagai guztien zerrenda: (1) Generoa; (2) Maila (DBH2, DBH4, Batxilergoa-1 eta Batxilergoa-2); (3) Hizkuntza-eroso (hitz egitean erosoan sentiarazten dituen hizkuntza); (4) Amak; (5) Aitak; (6) Ahizpak/Arrebak; (7) Nebak/Anaiak; (8) Amak lagunekin; (9) Aitak lagunekin; (10) Amak aitari; (11) Aitak amari; (12) Irakasle emakumezkoak; (13) Irakasle gizonezkoak; (14) Ikastetxeko langile emakumezkoak; (15) Ikastetxeko langile gizonezkoak; (16) Ikaskide neskek; (17) Ikaskide mutilek; eta (18) Hika gehiago egiteko desira.

Lagunartean hika aritzeari buruzko datuak 1. grafikoan ikus ditzakegu. Emakumezko lagunari hitz egitean, emakumezkoen % 2,8k eta gizonezkoen % 16k darabilte hitanoa normalean. Gizonezko lagunari zuzentzeko garaian askoz alde handiagoa antzematen da: emakumezkoen % 11,7k egin ohi die hika, eta mutilen arteko % 85,8k. Ehuneko altu hori aztertzeko garaian, kontuan izan behar dugu parte-hartzaile batzuek «beste hizkuntza batean» aukera markatu dutela, eta hortaz euskararen barruko hizkuntza-ohiturei soilik erreparatuko bagenie, hika egiten dutenen are portzentaje altuagoa aterako litzatekeela.



1. GRAFIKOA

Parte-hartzaileek lagunekin (emakumezko zein gizonezko) hika egiteko daukaten ohitura (%)

3.2. Zein aldagaiek dute lotura 12-18 urteko gazteek lagunekin hika egitearekin?

Eskura genituen aldagai guztiekin gurutzatu ditugu gazteek lagunekin —bai neskekin bai mutilekin— hika egiteko daukaten ohituraren datuak. Bereziki, lotura daukatela erakutsi diguten faktoreetan jarriko dugu hemen arreta. Aldagaiak esparruaren arabera multzokatuta ageri dira ondorengo tauletan: familian zentratu gara lehenik, eta hurrena ikastetxean. Horien ondoren, taulak txertatu ez ditugun arren, gurasoen hizkuntza-ohiturak hartuko ditugu aintzat. Azkenik, multzokatu ez ditugun aldagai batzuez jardungo dugu.

Gazte horiek beren familia nuklearreko kideengandik jasotzen dutenak izan dezakeen eraginari begiratuta, 1. taulan ikusten da aldagai horien eta gazteek hika egiteko daukaten joeraren artean lotura badagoela, eta estatistikoki esanguratsua dela.

1. TAULA

Subjektuen etxekoek subjektuekin hitz egiteko erabiltzen duten hizkuntzaren/tratamenduaren eta subjektuek lagunekin hika hitz egiteko daukaten ohituraren artean dagoen asoziazioa (n, %, χ^2 , ϕ)

Aldagaiak		Lagun gizonezkoei hika				Lagun emakumezkoei hika			
		n	%	χ^2	ϕ	n	%	χ^2	ϕ
Amak	Hika	31	79,5	,000	0,421	12	30,8	,000	0,451
	Zuka	157	44,2			23	6,5		
	Beste	35	43,2			10	12,3		
Aitak	Hika	92	85,2	,000	0,515	19	17,6	,000	0,398
	Zuka	96	35,2			14	5,1		
	Beste	31	36,0			10	11,6		
Ahizpa/Arrebak	Hika	24	82,8	,000	0,476	10	34,5	,000	0,473
	Zuka	96	42,8			12	5,2		
	Beste	16	39,0			6	14,6		
Neba/Anaiak	Hika	70	79,5	,000	0,645	17	19,3	,000	0,535
	Zuka	61	35,7			8	4,7		
	Beste	11	28,9			5	13,2		

Ama, aita eta arreba/ahizparen kasuan, asoziazio hori ertaina da, bai gizonezko bai emakumezko lagunei hika egiteko garaian. Anaiak hika, zuka, ala beste hizkuntza batean egiten dieten, hori ere lotuta dago gazteen hika egiteko joerarekin. Estatistikoki esanguratsua da bi kasu horietan, baina alde batekin: emakumezko lagunei hika egiteko orduan asoziazioa ertaina da; lagun gizonezkoei hika egiterakoan, aldiz, sendoa.

Ikastetxeko testuinguruan jasotzen duten inputa ere kontuan hartu beharrekoa da. 2. taulan aztertuko ditugu irakasle, ikastetxeko langile eta ikaskideek gazteekin dituzten hizkuntza-ohiturek nola eragin dezaketen horien hika egiteko joeran.

Irakasleengandik jasotzen dutenak harremana dauka gazteen hika egiteko ohiturekin, eta harreman hori esanguratsua da. Emakumezko irakasleak nola egin, harreman desberdina du gazteek emakumezko lagunekin hika egiteko garaian (ertaina), edo gizonezko lagunekin hika egiteko garaian (baxua). Gizonezko irakasleengandik jasotzen denaren kasuan, aldagaien arteko harremana ertaina da bi kasuetan. Ikastetxeko langileen kasuan, emakumezko irakaslearekin gertatzen den antzeko joera erakusten dute aldagaien arteko asoziazioek emakumezko langileekin; gizonezko langileekin, berriz, alda-

gaien arteko asoziazioa sendoa da, dela neska-lagunekin dela mutil-lagunekin duten hika egiteko ohituretan. Ikaskideengandik jasotakoak lotura argia erakutsi du gazteek hika egiteko duten joeran, konbinazio guztiak baitira estatistikoki esanguratsuak. Emakumezko ikaskideengandik jasotakoak mutil-lagunei hika egiteko orduan duen eraginean harreman ertaina dago, eta neska-lagunei egiterakoan sendoa. Azkenik, garrantzitsua da gizonezko ikaskideek nola egiten dieten gazteei; izan ere, analisisiek erakusten dute emakumezko lagunei hika egiteko aldagaiarekin duen harremana ertaina dela, eta gizonezko lagunaren kasuan, oso sendoa. Bereziki arreta eragina daukaten aldagaietan jarriko dugula esan dugu, baina subjektuen ikasketa-maila eta subjektu horien hitano-erabileraren artean loturarik ez dagoela ere nabarmentzekoa da: ez dago estatistikoki esanguratsua den harremanik DBH 2, DBH 4 edo batxilergoko ikasle izatearen eta lagunekin hika egiteko ohituraren artean.

2. TAULA

Subjektuen ikastetxeko partaideek subjektuekin hitz egiteko erabiltzen duten hizkuntzaren/tratamenduaren eta subjektuek lagunekin hika hitz egiteko daukaten ohituraren artean dagoen asoziazioa (n, %, χ^2 , ϕ)

Aldagaiak		Lagun gizonezkoei hika				Lagun emakumezkoei hika			
		n	%	χ^2	ϕ	n	%	χ^2	ϕ
Irakasle emakumezkoek	Hika	14	73,7	,000	0,360	5	26,3	,000	0,588
	Zuka	205	45,4			35	7,7		
	Beste	2	40,0			0	0,0		
Irakasle gizonezkoek	Hika	98	79,7	,000	0,555	14	11,4	,000	0,558
	Zuka	99	30,5			22	6,8		
	Beste	2	40,0			0	0,0		
Ikastetxeko langile emakumezkoek	Hika	9	52,9	,000	0,330	4	23,5	,000	0,399
	Zuka	181	44,1			30	7,3		
	Beste	6	40,0			1	6,7		
Ikastetxeko langile gizonezkoek	Hika	46	80,4	,000	0,619	5	8,9	,000	0,605
	Zuka	124	36,0			25	7,3		
	Beste	1	16,7			0	0,0		
Ikaskide neskek	Hika	20	74,1	,000	0,536	12	44,4	,000	0,779
	Zuka	197	45,0			27	6,2		
	Beste	2	28,6			0	0,0		
Ikaskide mutilek	Hika	56	74,7	,000	0,835	9	12,0	,000	0,569
	Zuka	28	11,2			9	3,6		
	Beste	0	0,0			0	0,0		

Gazte horien gurasoek dituzten hizkuntza-ohiturek ere eragina dutela ikusi dugu, maila apalagoan izan arren. Aldagaiak honako hauek dira: batetik, amak eta aitak lagunekin hika egiteko ohiturarik ote duten; bestetik, gurasoek elkari hika egiten ote dioten, eta hor ere bai amaren bai aitaren joera. Aldagai horiek gurutzatuz gero gazteek lagunekin hika egiteko ohiturekin, esan bezala, norabide guztietan estatistikoki esanguratsua den harremana dago aldagaien artean. Dena den, zortzi konbinazio posible horietan asoziazio baxua dago.

Azkenik, beste hiru aldagai jo ditugu bereziki aipagarritzat: parte-hartzaileen generoa, hitz egitean erosoan sentiarazten dituen hizkuntza eta egiten duten baino hika gehiago egiteko desira. Generoari errapatuz gero, argi dago gizonezkoa izatea hika egiteko faktore bultzatzailea dela; neska-lagunekin egiteko garaian eraginaren asoziazioa baxua da, baina gizonezko lagunekin hitz egiterakoan sendoa. Parte-hartzaileen hizkuntza nagusia euskara izateak ere badu eragina, eta lagunekin hitz egitearekin duen asoziazioa ertaina da, bai neskekin bai mutilekin. Etorkizunean hika gehiago egiteko desiraren datuak aztertuta, harreman estatistiko esanguratsua izan arren, oso harreman baxua du lagunekin hika egiteko ohiturekin.

Laburbilduz, ikerketa-galdera honetan hamazortzi aldagai aztertu ditugu, eta erakutsi dugu horietako askok lotura daukatela gazteek haien lagunekin hitz egiteko joerarekin. Aldagaien arteko harremana askotarikoa da, ordea, ikusi dugun bezala. Orain arte esandakoak laburbildu eta argiago ikusteko, daturik nabarmenenak 3. taulan bildu ditugu:

3. TAULA

Bigarren ikerketea-galderan aztertutako aldagaien artean asoziaziorik sendoenak dauzkatena

Asoziazioa	Lagun gizonezkoei hika egiteko	Lagun emakumezkoei hika egiteko
Oso sendoa	— Ikaskide mutilek	
Sendoa	— Ikastetxeko langile gizonezkoek	
	— Generoa — Nebak/Anaiak	— Ikaskide neskek
Ertaina	— Hizkuntza-eroso — Amak — Aitak — Ahizpak/Arrebak — Irakasle gizonezkoek	
	— Ikaskide neskek	— Nebak/Anaiak — Irakasle emakumezkoek — Ikastetxeko langile emakumezkoek — Ikaskide mutilek

4. Eztabaida eta ondorioak

Hitanoaren erabilerari dagokionez hainbat datu ikusi ditugu, eta horietatik eratortzen diren auzi azpimarragarrienak mahaigaineratuko ditugu atal honetan. Beste ezer baino lehen, kontuan hartu behar da datozen lefroetan aipatuko ditugunak uneoro baldintzatzen dituela generoaren aldagaiak. Besteak beste Alberdi Larizgoitiak (1993, 1994) eta Azkuek (2000) argi ikusi zuten hori haien lanetan, eta gurean ere agerian geratu da generoaren pisua hika egiteko faktore gisa.

Gazteen artean hitanoa erabiltzeko joerari dagokionez, generoaren faktorea are indartsuago bilakatzen ari litekeen zantzuak ikusi ditugu gure datuetan. Alberdi Larizgoitiak (1996) ikusi zuen genero berekoen arteko komunikazioak hika egitea errazten duela, bai gizonen bai emakumeen artean, eta antzeko fenomenoak erakusten dute Azpeitiko kale-erabileraren datuek (Soziolinguistika Klusterra 2016). Guk jasotakoak, ordea, Azkuek (2000) aurkikuntzekin datoz bat; izan ere, emakumezkoek maizago egiten diote hika gizonetakoari emakumezkoari baino. Gure emaitzei erreparatuz gero, emakume gazteen lagunarteko hitanoaren erabilera oso ahul legoke (% 2,8). Muguruzak, Bereziartuak eta Etxeberriak (2020) iradoki zuten emakumezkoak berantiaragoak izan daitezkeela hika egiten hasteko garaian, eta litekeena da lan honetako parte-hartzaileek, oraindik nerabe izanda, beranduago integratzea hitanoa haien hizkuntza-errepertorioan. Edonola ere, luzetarako ikerketa baten bidez aztertzeke fenomenoak litzateke.

Galde-sortekin bildutako datuek parte-hartzaileen erabilera aitortuaren berri ematen digute; ez dakigu, ordea, zein neurritan errespetatzen den gizonetako toka egitea, eta, bereziki, emakumezkoek noka egitea. Azkuek (2000) eta Ozaitak (2014) jokabide orokortu samartzat jo zuten, gazteen artean batik bat, emakumezkoari toka zuzentzea. Pentsa liteke gure ikerketan emakumezko lagunekin hika egiten dutela dioten horien artean batzuek behintzat tokako formak erabiltzen dituztela, baina behaketa bidez baieztatu beharko litzateke hori.

Hitanoa bai solas informalerako bai gazte-hizkera garatzeko aldaera proposa izan daitekeela ardukiatu dute hainbatek (Alberdi Zumeta 2019, Altuna 2018, Beitia 2017, Ugartemendia 2015). Gure emaitzen argitara, izatekotan, mutil gazteen arteko hizkera gisa balio dezake, hitanoa erabat nagusitzen baita harreman mota horretan. Halere, Soziolinguistika Klusterrak (2016) jasotako datuek erakusten dute umeei gutxiago egiten dutela hika, baina adinean aurrera egin ahala ez dagoela gorabehera handirik erabileran. Beraz, helduarora gerturatzearekin edo ume izateari uztearekin lotura handiagoa izan lezake, balizko gazte-hizkera batekin baino.

Esan bezala, generoa da hitanoaren erabileran eragina daukala argi erakusten duen aldagai bat. Hori izan da arrazoia lehenengo ikerketa-galderako emaitzak generoaren arabera bereizita aurkezteko. Bigarren ikerketa-galderari erantzuteko hartzailearen generoa kontuan hartu dugu, baina aldagai bakoitzean genero batekoen eta bestekoen datuak ez ditugu bereizi. Hala egitera datu interesgarriak azaleratuko zirelakoan gaude, baina esku-artean daukagun azterlanean hartzailearen generoa bakarrik aintzakotzat hartzea erabaki dugu, datu-itsaso batean ez itozteko. Aldagai gisa generoa oso garrantzitsua dela jakinda ere, horrez gain beste zein aldagaik parte hartzen duten ikusi nahi izan dugu.

Ikerketa honetan parte-hartzaileen gertuko ingurunean kokatzen diren aldagaiak izan dezaketen eragina ezagutzen saiatu gara. Teoriaren atalean erreferentziatzen hartu ditugun bi ikerketetan (Aizpurua 2018, Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa eskola 2009) dimentsio zabalagoko aldagaiak ere hartu dituzte kontuan, baina gure emaitzetan azaleratu diren aldagaiak bi ikerketa horietan aipatzen diren aldagaien artean daude. Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketan maila mikrosozialeko aldagaien artean kokatzen dira «hizkuntza-gaitasuna» eta «pertsonea eta talde erreferenteak», eta bi aldagai horietan barnebiltzen dira gure ikerketan eragin nabarmenena erakutsi duten aldagaiak. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreen azterketako emaitzekin ere gauza bera gertatzen da: han nagusitzen ziren «erraztasuna» eta «harreman-sarea» aldagaien baitan kokatuko genituzke gure ikerketan nabarmendu diren aldagaiak. Ikerketa horiek erakutsi dutenarekin bat eginez, euskara subjektuen hizkuntza sendoena izatea eta subjektuentzat gertukoak edo erreferenteak diren pertsonen hika hitz egitea lotuta daude subjektu horien hika egiteko joerarekin. Dena dela, aurrera begira interesgarria izan liteke dimentsio zabalagoko aldagaiak hitanoaren erabilerarekin eduki dezaketen lotura aztertzea.

Ikerketa honek erakutsitako emaitzek transmisioaren kontzeptuari heltzeko abagunea ere eskaintzen dute. Hizkuntzen etxeko transmisioarekin lotutako aldagaiak aztertuta (gurasoek edo senideek subjektuari nola hitz egiten dioten), aldagai horien eta subjektuek hika egitearen artean lotura dagoela ikusi da, baina lotura hori maila ertainekoa dela ikusi dugu. Lotura sendoa erakutsi duten aldagaiak beste batzuk direla agertu da (generoa, ikaskideak eta ikastetxeko langileak, bereziki) eta horrek transmisioaren paradigma berrikusteko beharra egon litekeela gogorarazi digu. Hizkuntza-sozializazioaren kontzeptuak azaltzen duen moduan, orain artean hizkuntzen transmisioa goitik behera egin dela uste izan bada ere, harreman horizontalek (anai-arrebak, ikaskideak...) eduki dezaketen garrantzia ere aintzakotzat hartu beharko genuke (Kasars 2017).

Horren harira, kontuan hartu behar dugu orain arte garrantzitsutzat hartu izan ez diren figurek ere paper garrantzitsua joka dezaketela hizkuntzen biziberritzean edo berreskuratzean. Eta agian komenigarria izan liteke figura horiei daukaten garrantziaren aitortza egitea, kontzientzia har dezaten eta beren eginbideak eragina daukala jakinda joka dezaten.

Transmisioarekin eta hizkuntza-sozializazioarekin lotuta, Azpeitian jabetzen dira irakaskuntzak ere asko egin dezakeela eta hortik jarri zuten abian AzpeitHika egitasmoa. Egun aurrera darrai egitasmoak eta interresgarria izango litzateke hemendik urte batzuetara egitasmoak fruiturik eman al duen aztertzea.

Amaitzeko, hitanoa osasuntsu dagoela esan litekeen herri batean gauzatu dugu ikerketa eta nekez transferi daitezke emaitza hauek beste tesuinguru batera. Halere, hitanoa bizirik dagoen eremuan ikertzea iruditu zaigu emankorra, hortik bildutako emaitzek hizkuntzen (edo, kasu honetan, tratamenduaren) berreskurapenean edo biziberritzean aurrera egiteko ekarpenak ere egin ditzaketelakoan.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Aizpurua, Jon, 2018, «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106:1, 29-45. http://www.soziolinguistika.eus/files/jon_aizpurua_106.pdf
- Alberdi Larizgoitia, Xabier, 1993, «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 64, 425-442.
- , 1994, «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera* 34, 983-993.
- , 1996, *Euskararen tratamenduak: Erabilera*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Alberdi Zumeta, Laura (2019). «Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 113(4), 129-154.
- Altuna, Jaime, 2018, «Noka eta tokaz galdezka», *Jakin* 227-228, 187-192. <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikuluak/soziolinguistika/4214>
- Amonarriz, Kike, 2019, *Euskararen bidegurutzetik*, Donostia, Elkar.
- Androutsopoulos, Janis, 2005, «Research on youth Language», in Ulrich Ammon, Norbert Dittmar & Klaus Mattheier (arg.), *Sociolinguistics: An International Handbook of the Science of Language and Society*, Berlin, de Gruyter, 1496-1505.
- Androutsopoulos, Janis & Georgakopoulou, Alexandra, 2003, «Discourse constructions of youth identities: Introduction», in Janis Androutsopoulos

- & Alexandra Georgakopoulou (arg.), *Discourse Constructions of Youth Identities*, Amsterdam, John Benjamins, 1-15.
- , 2008, «Youth, discourse and interpersonal management», in Gerd Antos & Eija Ventola (arg.), *Handbook of Interpersonal Communication*, Berlin, Mouton de Gruyter, 457-480.
- Aranguren, Maddi, 2012, *Azpeitiko gazteak eta euskara* [Hiznet, sakontze-egitasmoa]. Interneten eskuragarri: <https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Azpeitia.pdf> [Kontsulta: 2021-11-26].
- Artola, Amalur, «Nola zorroztu aizkora kamutsa?», *Gara*, 2018ko ekainaren 2a. Interneten eskuragarri: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-06-02/hemeroteca_articles/nola-zorroztu-aizkora-kamutsa [Kontsulta: 2021-11-26].
- Azkue, Xabier, 2000, *Hitanoa Zumaian*, Zumaia, Zumaiko Udala.
- Azpeitiko Euskara Patronatua, 2012, «Azpeitiko gazteen hizkuntza-ohiturak». Interneten eskuragarri: http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/dokumentuak/2012/Azpeitiko_gazteen_hizkuntza_ohiturak_ONDORIOEN_TXOSTENA_ona.pdf [Kontsulta: 2021-11-26].
- Azpeitiko Udala, 2015, *Hitanoaren erabilera Azpeitiko gazteen ikuspuntutik*. erabili.eus. Interneten eskuragarri: <http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/1449225385> [Kontsulta: 2021-11-26].
- Beitia, Iñigo, 2017, «Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: Uste, balore eta jarrerak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 103, 139-166.
- Blommaert, Jan, 2005, *Discourse: A Critical Introduction*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Ceginskas, Viktorija, 2010, «Being ‘the strange one’ or ‘like everybody else’: School education and the negotiation of multilingual identity», *International Journal of Multilingualism* 7, 211-224.
- Esnaola, Imanol, 1998, «Gazteen hizkera aztertzetik HEArako (Helduen Euskalduntzea eta Alfabetatzea) zenbait irakaspide», *Ele* 18, 103-115.
- Garzia, Joxerra, «Hiri berorika egingo dizut», *Berria*, 2016ko martxoaren 12a. https://www.berria.eus/paperekoa/1955/019/001/2016-03-12/hiri_berorika_egingo_dizut.htm [Kontsulta: 2021-11-26].
- Højrup, Louise & Møller, Julie, 2010, «69 LOVE YA: Studies of contemporary youth language in Copenhagen 2008», in Jens Norman Jørgensen (arg.), *Love ya hate ya: The sociolinguistic study of youth language and youth identities*, Newcastle upon Tyne, Cambridge Scholars, 226-248.
- Jørgensen, Jens Norman, 2010, «The sociolinguistic study of youth language and youth identities», in Jens Norman Jørgensen (arg.), *Love ya hate ya:*

- The sociolinguistic study of youth language and youth identities*, Newcastle upon Tyne, Cambridge Scholars, 1-14.
- Kasares, Paula, 2017, «Euskararen transmisioa: Berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik», in Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea & Ibon Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, Bilbo, UEU, 27-51.
- Le Page, Robert Brock & Tabouret-Keller, Andrée, 1985, *Acts of Identity*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Li Wei, 2008, «Research perspectives on bilingualism and multilingualism», in Li Wei & Melissa G. Moyer (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism*, Oxford, Blackwell, 3-31.
- Martínez de Luna, Iñaki, 2001, «Euskal herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 40, 47-66.
- Martínez, Juan Antonio, 2009, «Lexical innovations in Madrid's teenage talk: Some intensifiers», in Anna-Brita Stenström & Annette Myre Jørgensen (arg.), *Youngspeak in a Multilingual Perspective*, Amsterdam, John Benjamins, 81-94.
- Meinhof, Ulrike Hanna & Galasinski, Dariusz, 2005, *The Language of Belonging*, New York, Palgrave Macmillan.
- Moshman, David, 1999, *Adolescent Psychological Development. Rationality, Morality and Identity*, Mahwah, NJ, Lawrence Erlbaum.
- Muguruza, Beñat, Bereziartua, Garbiñe & Etxeberria, Juan, 2020, «Ez da mattetzen erakutsi. Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala», *Uztaro* 115, 117-143.
- Ozaita, Josu, 2014, «Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 91, 83-103.
- Pavlenko, Aneta & Blackledge, Adrian, 2004, «New theoretical approaches to the study of negotiation of identities in multilingual contexts», in Aneta Pavlenko & Adrian Blackledge (arg.), *Negotiation of Identities in Multilingual Contexts*, Clevedon, Multilingual Matters, 1-33.
- Rodriguez, Txerra, «Erabilera arauak aldatzen ari dira», *Jakin*, 2015eko martxoaren 17a. Interneten eskuragarri: <https://www.jakin.eus/blog/soziolinguistika/txerra-rodriguez/erabilera-arauak-aldatzen-ari-dira/71> [Kontsulta: 2021-11-26]
- Soziolinguistika Klusterra, 2016, *Azpeitiako hizkuntza-erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa. Emaizten txostena*, Andoain, Soziolinguistika Klusterra.

- Soziolinguistika Klusterra, Topagunea & Urtxintxa eskola, 2009, *Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*. https://soziolinguistika.eus/files/gazteak_aurkezpena3.pdf [Kontsulta: 2021-11-26].
- Stenström, Anna-Brita, Andersen, Gisle & Hasund, Ingrid Kristine, 2002, *Trends in Teenage Talk*, Amsterdam, John Benjamins.
- Tabouret-Keller, Andrée, 1996, «Language and identity», in Florian Coulmas (arg.), *The Handbook of Sociolinguistics*, Oxford, Blackwell, 315-326.
- Ugartemendia, Maier, «Hitanoaren etorkizuna gazteen ikuspegitik begirata», *Tolosaldeko Ataria*, 2015eko otsailaren 1a. Interneten eskuragarri: <https://ataria.eus/tolosaldea/1422606606288-hitanoaren-etorkizuna-gazteen-ikuspegitik-begirata> [Kontsulta: 2021-11-26]
- Vermeij, Lotte, 2004, «“Ya know what I’m sayin’?” The double meaning of language crossing among teenagers in the Netherlands», *International Journal of the Sociology of Language* 170, 141-168.